

# TXIKITTO

2011ko abendua

124

## Gabonak ATE JOKA



...eta  
kitto!

## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena  
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,  
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aupa lagunok! Opor bezperatan gaude, laster Olentzero... Ea opari asko jasotzen ditugun, egin dugun lan guztiarekin merezi dugu-eta.

**Arrateko Andra Mari** ikastetxeitik gure berri eman nahi dizuegu, guk egindakoa gustatzen bazaizue zuek ere egin dezazuen.

Aurten gure ikastetxeko lagun batek San Andreseko Bertso paper lehiaketa irabazi du, Aurelis Martinezek, **ZORIONAK!** Oso lan polita egin duzute. Gure lagunarekin poztu, eta berehala, San Andres eguneko azoka ospatu genuen: erakusketa, bertso eta abestiak eta herri kirolak izan genituen eta oso ondo pasatu genuen denok.

Handik egun gutxitara Euskararen eguna ospatu genuen, eskolan denon arteko ekitaldi txikia egin genuen, eguna gogoratu eta elkarrekin **EGIOZU EUSKARAZ** abestia kantatuz. Ondoren 5. mailakoek Mintzodromoan hartu zuten parte.

Txikiak ez zaizkigu atzean gelditu, abenduaren 5ean Mungia joan baitziren, Olentzeroren etxera. Hori bai ilusioa!

Orain Gabonetako lanetan ari gara: krisma lehiaketa egin dugu, opor aurretik familiak zoriontzeko erabiliko dugun postala aukeratzeko; Olentzeroren gutunak idazten ari gara; Santo Tomas eguna ospatuko dugu eta kantuan ere bagabiltza, auzoan zehar egingo dugun Olentzeroren kalejiran abestuko ditugun kantuak gogoratzeko eta ikasteko, ea Olentzeroren bisita jasotzen dugunean, bai eskolan eta bai etxean, poz pozik gelditzen den eta opari ederrak ekartzen dizkigun.

Azaroaren 29an, San Andres eguna ospatu genuen **Urkizu** eskolan. Abenduaren 2an, berriz, Euskararen eguna.

Abenduaren 13an, Urkizuko 5 urteko, 1go eta 2. mailako ikasleek Izenadubako Pertsonaien Bisita jaso zuten.

Abenduaren 23an, Urkizu eskolatik "Gabon Kalejiran" irtengo gara. Eguraldi txarra egingo balu, eskolan bertan egin beharko genuke "Gabon Kalejira". Gainera, Olentzeroren bisita jasoko dute Urkizuko haur hezkuntzako umeek. Ea opari askorekin datorren!

**La Salle Isasi** ikastetxean Gabonetan sartuta gaude jada: abestiak, apaingarriak eta denetik daukagu egun hauetan.

Gutxi falta oporrak hartzeko eta denok noiz helduko zain gaude!


Abenduaren 13an lau urtekoak Olentzeroren etxea bisitatu zuten Mungian, bertan ikazkinari opariak eskatuz. Benetan urduri zeuden! Bestalde, egun berean 1.go eta 2. mailakoak Izenadubako bisita jaso zuten, Euskal Herriko pertsonai mitologikoak ezagutuz.

Amaitzeko abenduaren 21ean Gabonetako jaialdia egingo dugu gure ikastetxean eta denok zaudete gonbidatuta.


Ondo pasa oporrak eta urtea ondo amaitu!



# DENBORAPASAK



Hizki zopa



Hogarekin

autob

autobusa

Fazka

Alkandara

Motora

Hizki zopa

Hizki zopari hauek bikatu behar dituzue :

G	M	M	A	R	U	R	Berdea
U	O	L	M	K	R	U	Naranja
M	O	R	E	A	D	O	Gorria
M	A	R	R	O	I	A	Urdina
T	L	H	G	I	N	O	Marroia
B	E	R	D	E	A	E	Beltza
N	A	R	A	N	J	A	Morea
B	E	L	T	Z	A	J	

# TXISTEAK



Gizon bat medikuarengana joan da eta esaten dio:

-Sendagile jauna, kezkatuta nago. Etxean andreak esaten dit "Federiko" berba gaizki esaten dudala.

Eta medikuak:

-"Federiko" gaizki esaten duzula? Ederki asko esan duzu orain. Ea, ea esan berriro poliki. Poliki: FE-DE-RI-KO!

Gizonak, errepikatzen du:

-FE-DE-RI-KO

Eta sendagileak:

-Ba, oso ondo esan duzu.

Gizona etxera joaten da eta esaten dio emazteari:

Kaixo Maritxu, medikuak esan dit oso ongi hitz egiten dudala. Ea, ireki federikoa eta ekarri ardo botila!

**AMAL BENSLAIMAN**



Behin partidu batean bazegoen hain jokalaria txarra, gol bat sartu zuela eta errepikapenean kale egin zuela.

**ANA PORTU**

Elefante batek zera galdetu dio gameluari:

-Zergatik dituzu titiak hor goian?

-Begira nork galdetzen duen, zakila aurpegian duen batek!

**NAIA HERRERO**

-Sendagile jauna, astebete daramat lorik egin gabe, jan gabe eta edan gabe. Zer daukat?

-Ba, seguru asko logurea, gosea eta egarria.

**IKER LAPEYRA**

Ume bat etxean dago negarrez, eta aitak esaten dio:

-Zer gertatzen da, seme?

-Eskolan zigortu egin nauela andereñoak.

-Andereñoak zigortu egin zaituela? Zer egin duzu ba?

-Brasil non dagoen galdetu dit, ez nekiela erantzun diot eta zigortu egin nau.

Hori entzutean, aitak esaten dio:

-Hurrengo batean hobeto gorde gauzak!

**IRUNE MOYA**





Mikel negarrez dator eskolatik eta amak galdetu dio:

- Zer duzu, horrenbeste negar egiteko?
- Andereñoak zigortu egin nau...
- Hara! Eta zergatik zigortu zaitu?
- Bere galderei erantzuteagatik.
- Gaizki erantzun diozu ala?
- Ez, ez. Nik ondo erantzun diot. Zeinek sartu duen sagua bere poltsan galdetu du eta nik neu izan naizela erantzun diot.

**MARIA MARTINEZ DE MUSITU**

Bi emakume elkartu dira, eta batak besteari esaten dio:

- Nire senarra aingeru bat da.
- Hau zortea! -erantzun dio besteak-. Nirea oraindik bizirik dago.

**ANA PORTU**

Haur batek esaten dio amari:

- Ama, albiste bi ditut zuretzat. Lehenengoa oso ona da: Matematikan 10a atera dut.
- Oso ongi, oso ongi!
- Eta zein da bigarren notizia? -galdetzen dio amak.
- Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

**LAURA LAHIDALGA**



## Gabon bon-bon...

**K**aleetan Gabonetako argiak piztuta daude eguna iluntzen denean, Olenzero zakua betetzen dihardu herriko etxeetatik ibilbidea egiteko eta bat baino gehiago Gabonetako jaki gozoezin pentsatzen sabelean lekua egiten dabil. Urte berriari begira promesak egiten diharduen jendea ere ez da falta!

Gabonak oso data bereziak dira pertsona askorentzat eta, noski, umeentzat ere. Gabonetako oporrak gogo handiz hartzen dituzte gaztetxoek eta, egun horietan zehar, ez zaie faltako ondo pasatzeko aukerarik. Hainbat ekintza antolatu dira umeen oporraldirako herrian, aspertzeko aukerarik laga barik.

Urteetan zehar ohikoa izan den bezala, GUA parkeak abenduaren 26tik 31ra irekiko ditu atea Armeria Eskolan. Zezen mekanikoa, Wii-a, puzgarriak, tailerrak, lehiaketak...



denetarik egongo da bertan. Bonoen prezioa 12 eurotako da eta Astixan egongo dira salgai abenduaren 13tik 16ra (9.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 18.00etara). Egu-neko sarrerak, berriz, 3,5 euroko prezioa izango dute.

Bestetik, GUAtik kanpo ere, egongo da aukera ondo pasatzeko. Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekimenez, barrakak ipiniko dira An-







bulategiko parkean eta Urkizun. Ekainaren 16tik urtarrilaren 8ra arte egongo da Gabonetako kanpaina martxan eta barrakez gain, Ugan Klubean txiki-parka egongo da herriko txikienentzat.

## Oparien zain

Abenduaren 24an hain magikoa den momentua biziko dute umeeak. Olentzero he-

rrira jaitsi eta kalejira egingo du 18.00etan herrian zehar. Aurretik, hala ere, opariak banatuko ditu udaletxean. Ohikoa den bezala, urtean zehar neska-mutil onak izan direnek euren oparia jasoko dute, baina ez hain onak izandakoek ikatza jasoko dute opari gisa.

Olentzeroren bisitaren ostean urte berriari hasiera emango zaio urtarrilaren 1ean, eta 5ean Erregeak etorriko zaizkigu gurera. Ekialdetik datozen hauei harrera egiteko, Dantza Garaikideko Ipurua taldeak, Gimnasia Erritmikoko Ipurua taldeak eta Ballet Eibarresek ikuskizuna eskainiko dute Astelenan 17.00etan. Ondoren, 19.00etan, Erregeen kabalgata egingo da Eibarko kaleetatik.

Eskatutako opariak jasoko dituzula uste duzu ala ikatza jasotzeko prest zaude? Egun gutxitan jakingo duzu.



## Gabonetako apaingarriak





Gabonei ikutu pertsonala eman nahi badiezu, hemen eskaintzen dugun eskulana aproposa da. Ea Olentzerori gustatzen zaizkion zure eskuekin egindako apaingarriak.

### MATERIALA

- Kolore gorri, berde eta zurizko ponpoiak.
- Kola-itsasgarria.
- Kartoia.
- Zulagailua.
- Zinta gorria.
- Inprimatzeko papera.
- Inprimagailua.
- Guraizeak.
- Arkatza.

### NOLA EGIN

- 1-Apaingarrien formak egiteko moldeak inprimatu eta moztu itzazu.
- 2-Moztutako figurak kartoiaren gainean kokatu eta moldearen lerroak arkatzarekin marraztu. Bastoia eta zirkulua marraztuta, moztu.
- 3-Ponpoiak itsatsi baino lehen, zintarekin eskegiko duzun tokian zulotxoa egin zulagailuarekin. Nahi izanez gero, zinta zulotxotik pasa eta korapiloa egin.
- 4-Kartoizko figuran kola-itsasgarria ipini; egin hori eta ponpoiak itsasten hasi. Banan-banan ponpoiak kokatu kartoia ikusi ez arte. Bastoiaren kasuan, ponpoi gorriak eta zuriak tartekatzen joan. Zirkuluan, berriz, berdeak ipini.
- 5-Lazotxoa egin zinta gorriarekin eta koroa berdean kokatu.
- 6-Liburu pisutsuak jarri gainean dena ondo itsatsi eta kola lehortzeko.



## SORGINA ETA USOA

**B**azen behin familia zoriontsu bat: senar-amazteak eta ume jaio berria. Auzoko guztiek miresten zuten familia hura: "Ah ze bikote ederra, eta semea zer esanik ez!".

Behin batean amaztea zuhaitz baten itzalpean zegoen haurtxoa magalean hartuta. Atso itsusi bat hurbildu eta.....

- Kaixo politori. Ilea orrazten utziko didazu?
- Ez, eskerrik asko, ez daukat orrazteko premiarik.
- Nik uste komeni zaizula. Utzidazu, utzidazu!
- Tira, komenigarria baderitzozu... orraztu!

Eta orrazten hasi zen. Baina atso temati hura sorgina zen, sorgin maltzurra, eta orratz beltz bat sartu zion lepoan. Orratza sartu eta emakumea uso bilakatu zen. Usoa, bai: hegoak zabaldu eta, pla-pla-pla, alde egin zuen! Atsoak, berehala, emakumearen tokia hartu zuen: zuhaitzaren itzalean eseri zen haurtxoa magalean jarrita.

Auzokoak, haurra atso ezezagun itsusi haren eskutan ikusita, harritu egiten ziren.

- Aizu, nor zara zu?
- Eta sorginak gezurra.

-Ume honen ama! Nor izango naiz ba? Itxuraldatuta nago, bai, lehen emakume ederra nintzen, baina sorgin gaizto batek itxura hau eman zidan"

Hasieran inork ez zion sinetsi, baina hainbestetan esaten zuenez gauza bera, azkenerako denek ziria irentsi. Baita senarrak ere. Sorginak emakumea ordezkatzeara eta etxe zoriontsu hartan sartzea lortu zuen.

Etxeak lorategi polita zeukan eta, egun hartatik aurrera egunero uso zuri bat hurbiltzen zen bertara. Senarrari uso hura asko gustatu eta harrapatzen saiatzen zen. Sorginak, berriz:

- Zertarako nahi duzu uso nazkagarri hori? Ala! Goazen barrura!

Baina behin, zorionez, senarrak usoa harrapatu zuen. Gizonak burua laztandu zionean, arraroa zen zerbait aurkitu zion. Horixe arraroa! Orratz beltza zeukan kokotean sartuta. Gizonak orratza atera eta usoa emakume eder bilakatu zen! Bere amaztea zen!

Emakumeak gertatutakoaren berri eman zuenean, herritarrek sorgina atxilotu zuten. Enparantzan epaitu eta herritik bota egin zuten.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



## OSAGAIAK:

- Limoizko yogur 1.
- 4 arrautza.
- Irinezko 3 edalontzi.
- Auzkrezko 2 edalontzi.
- Ekilore-oliozko edalontzi 1.
- 2 golden sagar.
- Legami-hauts sobre 1.

*Bazkari goxo baten ostean, zer hobe zure eskuekin egindako postrea jatea baino? Yogurra, bizkotxo eta sagarra bat eginda!*

## PAUSOAK:

- 1-Labea 200°C-tara berotu 15 minutu lehenago.
- 2-Arrautzak azukrearekin irabiatu euren bolumena bikoiztu arte.
- 3-Yogurra gehitu eta irabiatu.
- 4-Irina legamiarekin batera gehitu iragazkiarekin eta, azkenik, olio bota eta irabiatu.
- 5-Nahasketa guztia gurinez estalitako ontzian bota.
- 6-Sagarrei azala kendu eta nahasketaren gainean ipintzeko xafla txikietan moztu. Azukrea bota gainetik.
- 7-Labean sartu 180°C-tara 25 minutuz eta, egosita dagoela ikusteko, aiztoa sartu. Garbi irtetzen bada, egosita dagonaren seinale.



**Yogur bizkotxo  
sagarrarekin**

# INTERNETEN...



## gureumeenmundua.blogspot.com

Iratxek mundua ireki die umeei blog honetan. Bertan, umeentzat interesgariak diren kontuak azaltzen dira artikulu txikietan eta etengabe berritzen doa bere edukia. Jolasak, umeek ondo pasatzeko leku eta txokoak, marrazkiak, errezetak, eskulanak, animaliak, aisialdia, museoak... denetariko gauzak aurki daitezke bertan. Animatuko zarete Iratxek sortutako munduan sartzera? Ez izan zalantzarik!

## www.ingurugiroetxea.org

Ingurugiro Etxea Umeentzako museoak izan zen aurretik. 1987an sortu zen eta helburu nagusia bisitariak ingurumena babesteko ezagupenak, interesa eta beharrezko sentsibilitatea lortzea izan zen. 1998-1999 urtean artean museoak erabat aldatu zen, bai eduki aldetik, bai ikuspegi aldetik ere. Horrela, Ingurugiro Etxea sortu zen. Ingurumen ikuspegi berrietara egokitu zen horrela, eta euskaldunei orokorrean eta, bereziki, eskoletako neska-mutilei ingurumena ezagutu eta honen arazoak jabetzen lagunduko zien espazioa sortu zen.



## ARIES

La konturatu gabe joan zaigu 2011. Zenbat gauza bizi izan dituzun azken 365 egunetan, ezta? Ba pentsa, 2012ak 366 egun izango ditu!

## TAURUS

Urte ezinhobe amaituko duzu, baina urte berria ez da hain modu onean hasiko. Hala ere, lasai, gauzak bere tokian ipiniko dira gero-eta.

## GEMINIS

Olentzerok opari berezia ekarriko dizu aurten: gripea! Bai, ez da gauza ona, baina etxean geratu behar zarenez, gauza on askoz konturatuko zara.

## CANCER

Seguru ikatza ez den zerbaite espero duzula Olentzeroren eskutik? Ondo portatu zarela uste duzu, baina ez dakit Olentzero iritzi berekoa den.

## LEO

Momentu bereziak biziko dituzu Gabonetan, urte osoan gogoratuko dituzunak. Gainera, pozez zoratzen jarriko zaituen ezustekoa jasoko duzu.

## VIRGO

Mahatsak banan-banan jan, ito egingo zara bestela! Urte berrian ondo sartu nahi baduzu, bada-kizu, lehenik mahats bat, gero beste bat...

## LIBRA

Gogoratzen dituzu iaz egin zenituen promesak? Bete dituzu? Ba ez zabaldu gehiegi ahoa.

## SCORPIUS

Zaila izango da aurtengo urtea gaintitzea edo berdintzea, baina saiakerak behintzat mereziko du. Bitartean, Gabon zorionsuak pasa itzazu.

## SAGITARIUS

Urteak joan urteak etorri beti abesti berdinak abesten dituzue etxean Gabonetan. Zergatik ez duzue errepertorioa zabalitzen? Aspertu egingo zarete bestela.

## CAPRICORNIUS

Errealia izan zaitez eta ez eskatu Olentzerori zure ateitik sartu ezin diren gauzak. Gainera, zertarako behar duzu zuk itsasontzi bat?

## ACUARIUS

Urtea amaitu lehen hainbat gauza egitea gertatzen zaizu, baina batez ere bat: lagun horri bar-kamena eskatu. Ikusiko duzu zeinen gustora jango dituzun mahatsak horrela.

## PISCIS

Giro politean amaituko duzu urtea eta giro hobegon hasiko urte berria. Zorte handia daukazu inguruan dituzunak alboan izanda.

Nagusixen eta umien artian  
desberdintasun haundixak  
izaten dirala pentsatzen dogu,  
baina zer gertauko zan galdera  
bardiña egitten badetsagu  
nagusixari eta umiari?  
Horrenbesteko aldia  
egongo ei da?

## **Zelan ospatzen dozuz Gabonak? Zelan gogoratzen dozuz?**

### **LUISA CID, 38 URTE**

Lau anai-arreba gara eta giro izugarria egoten zan nire etxian txikittan. Errege gaban ez neban ixa lorik egitten urduritasunagaittik eta, zuhaitzera ailegatuzian, opari asko ikustiaren emozioa gogoratzen dot.

### **MARA FURONES, 8 URTE**

Gabonetatik gehixen gustatzen jatana nere familixarekin zuhaitza ipintzia da, eta oparixak eta argi eta abestixak. Aurten Olentzerori esku berde bat eta Monster High bi eskatu detsadaz.







## SANTURTZIKO MAMUAK

Nork esango zuen mamuak gazteluetan soilik bizi direla? Santurtziko mamuak herri erdi-erdian bizi dira, parkean eta jendez inguratuta. Eta nork esan zuen mamuak beldurgarriak direla? Gure mamuak alai-alaiak dira eta jendeari laguntzeko prest daude. Eta bazenekien, mamuen laguntzaz, zu ere mamua izan zaitezkeela? Liburu honetan ikusiko duzu zure ikastetxeoak nola bihurtu ziren mamu!



## HERIOTZAK

Josu ospitalean dago, ustez bere azken egunak izango direnak igarotzen. Heriok aurki eramango duela sinetsita dago, gauero egiten baitio bisita. Josuk, halere, ez du hil nahi, eta ihes egin behar diola erabakitzen du, engainatuko duen zerbait asmatuz. Estualdi horretan dagoela, heriotzari buruzko istorioak kontatuko dizkiote elkarri.




## PLATONEN URMAELA – LAPURTUTAKO GILTZAREN BILA

Platonen urmaela liburua misteriozko istorioa da, baina polizia-nobela ere bada, eta abentura-istorioa edo detektibe-istorioa ere bai. Umorea eta suspentsea ditu, zientzia eta fikzioa ere bai, baina ez da zientzia fikzioa. Klabeam idatzitako oharren bidez, irakurlea Gaia mundu imaginarioko ekosistema desberdinetan murgiltzen da; besteak beste, giltza magikoak, landare haragijale erraldoiak eta sudur luzeko izaki bitxiak aurkituko ditu bere bidaiari.



## PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS - SIRENEN KANTUA

Marimotots, Patakon kapitainaren aginduaren aurka, barku piratako ate debekatua zeharkatu, eta sirenen herrira iritsi da. Graxilami ezagutuko du, arrainen tankerako isatsa duen itsas lamina. Berak kontatuko dio behin gizaki batez maitemindu zela, eta geroztik triste bizi dela. Bien bitartean, Marimototsen bila ari dira Patakon eta bere tripulazioa, eta ez dute amore emango hura aurkitu arte. Aurki konturatuko da Marimotots, bera ere, ezin dela lagunengandik urrun bizi.



## MAGIA-ESKOLA – DESIOEN ERREINUA

Desioen Erreinura egindako bisitan, Michael Endek sekretu baten berri izan du: gudan dago magia. Rosamarino Silber maisu ospetsuak gauza oso garrantzitsu bat irakatsi dio: magia egin nahi duenak, bere desio-indarra erabiltzen jakin behar du. Horretarako, lehenik eta behin, bere benetako desioak zein diren jakin behar du, eta horiek baliatzen ikasi.



## JARA LIVE

- Uiuuuiuuuu... Plan berbak beldurra ematen dit zure ahoan –esan zion Jarak Ihintzari.
- Jara, zu akordatzen al zara Austrolopitekus taldearekin?
- Nola ez, ba? Jazz eta haren laguneren musika taldea! Neu izan nintzen-eta bideoklipeko protagonista! –esan zuen Jarak harro.
- Kontzertua eman behar dute?
- Kontzertua? Non?
- Lekeitioko Gazte Akanpaldian!

# KATTALINEN BEHATZA

